

Norbera eta bertzea

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Bada espazio bat norberarena, inork inbaditu ezin duena. Bertzeak marra hori pasatzen duenean, gehiegi hurbilduz edo gal-detuz, nahi ez dudanean ukituz, nire itxurari edo bizimoduari buruz iruzki-nak eginez, edo gehiegizko zaratarekin lasaitasuna galaraziz, sua pizten zait ba-rrenean eta ahotik ateratzen zait heren-sugeari bezala. Irenstea okerrago izaten da. Goiti edo beheiti, edo erdian trabatu-ta, a ze erredura zintzurrean!

Bertzeari zer egin errateko ohitura he-datuegi dugula iruditzen zait, gehiago dakigulakoan; modurik onena, edo posi-ble den bakarra, gurea delakoan. Uste horrekin epaitzen dugu.

Epai horiek izugarri eragiten digute, bertzearen begirada garrantzitsua dela-ko norberarentzat. Bertan islatzen gara. Eta jaiotzen garenetik hiltzen garen ar-te, garen bezala ikusiak eta adituak iza-teko beharra dugu. Baina egiatan adi-tzen eta begiratzen al diegu ondoan ditugunei? Zentzu guztiekin erran nahi dut, jarrera ireki batekin, norberarena alde batera utzita. Hor erronka handia dugu. Izan ere, bertzea solasean ari zai-gunean erranen diogunari buruz pen-tsatzten aritzen gara maiz berari kasu egin gabe edo erdizka entzunez. Eta el-karrizketan aberastu beharrean, baka-rrizketak jaurtitzen ditugu, bakoitza be-rean tematuta.

Bertzearen isla horretan, etengabe egiten ditugu konparazioak. «Ume hau bertzea baino politagoa da» sarri adi-tzen dut, tamalez. Edo «X azkarra da eta Y ez hainbertze». Bereziki haur horiek anai-arrebak badira. Heldu egitean ere jarraitzen dute itxurari zein izaerari bu-ruzko alderaketek, eta sekulako kaltea egiten dute, uste oker franko uzten di-gutelako iltzatuta.

Denok gara parekoak eta bereziak eta errespetua merezi dugu. Aniztasunak askatu egiten nauela sentitzen dut. Kasu honetan, pizten zaidan suak goxatu egi-ten nau, poztu, motibatu, itxaropenez bete. Bertzeak zabaltu egiten du norbe-re espazioa ere. •

Eutanasia eta suizidioa

**Xabier Mikel
Errekondo**

Denok nahi dugu bizi, esan ohi da, baina ez da hain egia boro-bila. Norberak kito esan arte (zioak zio) nahi dugu bizi behintzat, duintasunez betiere.

Ekainaren 25etik indarrean den Euta-nasia Arautzeko Legeak jende asko du zain, aspaldidanik zuen, bereziki duin-tasunik gabe eta sufritzen bizitzen ja-rraitu nahi ez dutenak; lasaitu ederra hartu dute.

Gehiengo zabal batek aspalditik begi-ratzen dio aurrez aurre bizitzari bere borondatez amaiera emateko aukerari. Legeak, baina, azpimarra batzuk mere-zi ditu: batetik, bidezidor nahasia, non

medikuen eta Bermeen Jarraipen Ba-tzordearen txostenen artean atzera-au-rterra txirikorda luze batean gal zaitez-keen. Bestetik, denbora luze egin dakizuke, protokoloak ezarri epeak be-te bitartean. Eta, azkenik, erabiltzaileak pairatu beharreko egoera zorrotzegia: gaixotasun sendaezina eta, desgaita-sun handia edo bizi pronostiko muga-tua eta sufrimendu onartezina.

Espero dut benetan eutanasia betira-ko iltzatzea gizartearen, protokoloa arin-tzen joatea eta baldintzak epe laburre-an xehatzea. Eta, amesten dut egunen batean edonork, edonoiz, edozein dela-rik bere egoera, bere borondate soilaz

bururaino eraman ahal izatea suizi-dioa modu arautuan. Bizitzari eusteko eskubidea adinakoa baita agur esate-koa.

Nago, erlijioen paliotik eta aurreiritzi sozialetatik askatuta, suizidioa ikusa-razteak mamuak uxatuko lituzkeela eta lege honek ausardiaz suizidio askea jasoko balu naturaltasunez onartuko lukeela gizarteak. Gizarte aurreratua-go, libreagoa eta helduagoa litzateke.

Hori bai, erabaki ahalmenik gabeko balizko desgaitasun egoera baterako idatzi Aurretiazko Borondateen Doku-mentua (ABD) eta jaso eutanasiaren aukera. •